

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Muebles de Viana Kooperatiba abian jartzeko milioi bat euroko abala jarri du

Muebles de Vianak 50 langilerekin ekingo dio bere jarduerari Muebles Salcedoren birmoldaketaren ondorioz sortu ondoren

Jueves, 24 de mayo de 2012

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilari Lourdes Goicoecheak, Nafarroako [Lan Enpresen Elkarteko \(ANEL\)](#) ordezkari Alberto Morentin eta bazkide-langile José Antonio Iraizozekin batera, Muebles de Viana kooperatiba-sozietatea aurkeztu du, ekainaren 4an funtzionatzen hasiko dena. Gainera, aurkezpen-ekitaldian izan dira: ANELeko zuzendari Antonio Martínez de Bujanda, Coingest SALeke zuzendari Javier Saenz eta kooperatiba berriko beste langile batzuk ere, besteak beste, Luis Isabelo Bustos, José Julio Lorenzo Lorenzo, Tomás Alcalá Sacristan eta José María Martínez Gonzalez.



Muebles de Viana enpresa-kooperatibaren aurkezpena. Goicoechea kontseilaria enpresako bazkide-langileekin eta Anel-en ordezkariarekin.

Goicoechea kontseilariak aipatu duenez, "Nafarroako Gobernuaren kezka lanpostu-kopuru gehienei eustea izan da". Gainera, alde guztien inplikazioa eskertu du, langileena bereziki, "sozietatearen formula horren aldeko apustua egiteagatik, eta ziur nago kooperatibaren arrakastan eragina izango duela".

Muebles de Viana Kooperatiba Sozietateak 50 bazkide-langile izango ditu, eta proiektu berria abian jartzeko 2.493.000 euro jarriko dituzte. Aurrekontu hori ekoizpen-unitatea erosteko erabiliko da (1.350.000 euro+ BEZ), lantegian hobekuntza batzuk egiteko (400.000 euro), izakinen operazioetarako (400.000 euro) eta abian jartzeko gastuak (100.000 euro).

Inbertsio horiei aurre egiteko bazkide-langileek beren langabezia-prestazioa kapitalizatuko dute (1.150.000 euro), eta mailegu bat gauzatuko dute hiru finantza-erakunderekin 1.400.000 euroan; kopuru hori Nafarroako Gobernuak 350.000 euroekin abalatu du gehi Oinarri elkarrekiko berme-sozietaterekin egindako hitzarmena, eta hitzarmen hori dela eta, Gobernuak 140.000 euro jar dezake bere hornidura

teknikoetarako huts eginez gero. Oinarri-k operazio horretarako 700.000 euroko abala jarriko du.

Gainera, Enpresa eta Berrikuntzako Zuzendaritza Orokorrak 510.000 euroko hirugarren abal bat jarriko du zirkulatzaila lortzeko; beraz, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuaren parte-hartzea operazioan, orotara, milioi bat eurokoa izango da.

Departamentuak kooperatiba sortzen ere lagundu du ANELek eta Coingest aholkularitzak idatzitako bideragarritasun-azterketak izan duen kostuaren % 80 finantzatuz. Txosten horrek enpresaren bideragarritasuna abalatzeko zuten. Prozesu hori Muebles Salcedo likidatzen ari den prozesu judizialek abiatuta egin da, eta Merkataritza-arloko Epaitegiak bideratu du.